T.U.
«Trabajo y Unión»

*Editora:* **LIGA DE EDUCACION Y CULTURA**
*Director:* **Juan Leibar Guridi**
Apdo. 23 - Tel. 792246 - MONDRAGON (Guipúzcoa)
Redacción y Administración
ESCUELA PROFESIONAL POLITECNICA DE MONDRAGON
*Ind. Gráf. Goyerri - Avda. Antigua, 19 - ZUMARRAGA*

OCTUBRE 1976 Dep. Legal S. S. 57-1970 Núm. 189

# Don JOSE MARIA

° Hil da Don José María. Goian bego.

° Euskal gizona, benetako Euskal Herriko semea eta fruitua.

° Bestearentzat emonkorra. Bere oinharrizko asmorik sakonenetarikoa zen: gizona bakarki ibiltzekoa ez da, baizik elkartasun eta laguntasunean konpontzekoa.

° Ardura hau bere inguruan sortzen ari zen bere bizi guztian. Lortzeko, gizonak gizontasuna lortu behar du heziketa bidez. Gizon guztiak eduki behar dute eskubide hori maila guztietan eta desberdintasun barik.

° Eginkorra. Beti aurrera begiratuz, une bakoitzean egin dezakena egiñaz: Ekin eta Jarrai. Beti aurrera jo zuen, asmuak eta egintazunak barristatuaz, eguneratuz, aldatzen doan neurrian.

° Iksupen, perspektiba ikusgarrizkoa zedukan eta besteentzat begiramen handiagaz jokatzen zuen, gehien batek ulertu eta onhartu arte berak aspalditik ikusita zeukana.

° Goitik beherañako apaiza, gaurko eta biarko apaiza. Osotasun eta laguntasun handia eman zion apaizgoak edo abadetzak.

° Gizon irmo eta sakon bat, eta bide batez apala, joan zaigu ba. Baiña ez guztiz, hemen utzi ditu bere asmoak, heziketak, irakatsiak eta eginkizunak.

° Luze joko luke nor zen lerro gutxitan esatea. Urrengo alea Don José María'ri eskeiniko diogu.

° Jarrai dezagun beti Don José Maria'rekin.

* * *

° La Revista TU, tan entrañable para él, ha perdido a su fundador, editorialista y animador. Ha perdido a su corazón.

° Don José María era un hombre de gran visión política y, sobre todo, de gran sentido práctico. Su guía: hacer real lo que es posible en cada momento. Su lema: implicar a los hombres en quehaceres en que estuvieran presentes los demás. Y fué una característica muy personal suya, como un adelantado conductor de hombres, trabajar con los demás. Su actitud era siempre de renovación, de actualización, constituyente. ¡Cuántas cosas por hacer!, repetía constantemente.

° A Don José María no es fácil definirle en unas pocas líneas. La revista TU le dedicará el próximo número. Descanse en paz.